


Ase ta gose • Patataren etorkizunaz gogoeta

Berde bizi • Kompost: zer da? zertarako?

Nabigatzen • Sex-Haizegoa: sexua Interneten



Bereizketetan



denak galtzaile

FAMILIA BATEN BEREIZKETA PROZESUA MINGARRIA eta garratza da, are gehiago tartean seme-alabak daudenean. Bereizketaren ostean hainbat iskanbila sortzen dira gauza materialak (etxea, autoa...) eskuratzeko, eta bereizketa guda bihurtzen da sarritan. Gauza materialez gaiti, seme-alabak norekin geratzen diren ere erabaki beharra dago, eta sentimenduak sartzen dira gatazkan. Irtenbide baketsua eta arrazoitua posible da, baina bereizketa prozesuan gurasoak pipertuta egon ohi dira eta seme-alabak elkarren aurkako arma gisa erabiltzen dituzte. Azkenean, denak galtzale.



Bereizketa krisi garala da eta seme-alabek oso momentu txarrak pasatzen dituzte. Hurrek, sarri, gurasoak berriro elkartuko direlako fantasía izaten dute.

Bikote batek bereiztea erabakitzen duenean bi bide ditu seme-alaben zaintza finkatzeko: alde batetik, elkarrekin akordio bat egin eta epaitegian beharrezko arauzko indarra ematea; bestetik, hasiera-hasteratik epaitegira jozteko epaileak erabaki dezan. Akordioarena ez da erraza, banaketa krisi garaia izaten baita, eta orduan adostasuna lortzeko zailagoa baitirudi. Epaitegietan, berriz, alde bakoitza ahalik eta eteknik handiena ateratzen saiatzen da.

Gaur egun seme-alaben zaintza ezartzeko orduan Espainiako Kode Zibila dago indarrean. Kode Zibila ez du irtenbide konkreturik ematen, eta erabakia epaileen irizpideen esku uzten du. Epaileek zaintza kasuetan sententzia bat errepikatzen dute gehienetan (kasuen %90etatik gora): seme-alabak amarekin geratzen dira familiaren etxebizitzan eta aitak dirua ordaindu behar du hilero ama zela seme-alabak mantentzeko.

Txema Ruiz de Gordejuela La Terraza Bizkaiko Guraso Bereizien Elkarteak lehendakaria da. Elkarteak zela zela ama bereiztuak daude, baina aitak dira gehienagoko nagusiak. Berak ere semeen zaintza galdutako hasteran, baina emaztearekin akordioa lortu eta zaintza elkarrekin banatzen dute gaur egun.



Carmen Rizo

«Seme-alabak ez dira behar bezela entzutzen, zaintzen eta babesten. Askotan itxura gordetzeko bakarrik galdetzen zaiela uste dut».

Ruiz de Gordejuelaren iritziz, «gaur egungo formularekin, hau da, seme-alabak amaren esku uztearekin, aita aidentu egiten da beraiengandik eta harremana galtzen du ia erabat. Pitxkanaka bakoitzak bere bizitza propioa egiten du eta azkenean aita guztiz bereizten da bere lehengo familiarik. Zaintza lortzen ez duen gurasoa, gehienetan aita, ikusle hutsa eta egoeraren esklabu bihurtzen da, eta ez du erantzukizunik».

Ruiz de Gordejuelak saiatzen duenez, epaileen jarrerak ez du islatzen benetako errealitate soziala. «Ohikoa denez, gizartea legeen aurretik dago eta legeek duela 30 urteko egoera jasotzen dute. Gaur egun familiarako rol tradizionalak aldatu egin dira eta aita zela ama gal dira seme-alabek arduratzeko. Emakumeak lan merkatuan sartu dira eta berdintasuna lortu dute halnab esparrutan».

Bere ustez epaileen jarrera errealitate horren aurka doa. «Zaintza emateko orduan, berriz, epaileek behin eta berriro indartzen dute familiararen ikuspegi marxista, aita lanean eta ama etxean finkatzen dituen. Jurisprudentziak berak aita eta ama elkarren aurka jartzen ditu, eta semeen erantzukizuna elkarbanatu beharrean, legeak benetako guda sortzen du».

Carmen Rizo abokatu matrimonialistak ere legeak hutsuneak dituela dio. «Kode Zibilaren sistematika oso txarra da eta kontraesanak ditu zenbat unetan. Zaintzaren tratamendua ez dago ongi sistematizatua eta behar bezela zehaztua. Araudaren flosolak gaur egungo gizartea betikotzen du, gizarte patriarkala. Zaintza kasu gehien-gehienetan amari ematen zailo eta aitak oso gutxi parte hartzen du seme-alabei buruzko erabakietan, harremana asko urruntzen baita. Aitak berak ere galdutako egiten du haurrekiko interesa».

Seme-alaben zaintzaren erabakia funtsezkoa da familiarako kide guztientzat eta ondorioak ditu epe motzera zela luzera, Ruiz de Gordejuelak azaltzen duenez. «Gaur egun kasurik gehienetan kanpoko pertsona batek, epaileak, erabakitzen du bereizitako gurasoen eta euren seme-alaben arteko harremana. Seme-alabak gehienetan amaren esku uzten direnez, aita askok harremana erabat eteten dute, egoera illogarria eta jasanazina bihurtzen baita. Horrek eragina du etorkizunean, seme-alabek gurasoetako bat galtzen baitu eta biek galdutako denbora ezin baita berreskuratu. Arrotzak dira elkarrentzat».

Hartutako erabakiaz damutu denik ere bada, «Seme-alabak helduak egin ondoren batzutan konturatu dira gertatutakoak eta galdutakoak. Galizian mutil batek bere ama salatuta du aitarrak gabe utzi zuelako eta ama hamazortzi urte geroago konturatu da garai hartan egin zuten akatsaz. Egoera horrek ez du atzera bueltarik».

Legia gaurkotu gabe

Carmen Rizo bat dator Ruiz de Gordejuelarekin eta berarentzat ere legeak ez du jasotzen benetako errealitatea. «Gaur egungo gizartea eta bizimodua aintzat hartuz, legea oso gutxi gaurkotua dago. Normalean zaintza amari ematen bazalote ere, aita batzuk gal dira seme-alabak aurrera ateratzeko. Hala ere, epailea hasieratik zaintza amari ematearen alde dago, eta orokorrean ez dute zailtasun izpirrik. Seme-alaben zaintza emateko orduan berdintasun handilagotz jokatu beharko litzateke, eta ez aita edo ama izateagatik epaitegietako erabakiak aurreiritzietan oinarritu. Bere seme-alaben zaintza lortu nahi duen aitak

Seme-alaben fantasiaz

Ana Zuazo psikologoak Donostilako familia epaitegian lan egin zuen, eta berarengana jo dugu bereizketak seme-alabengan sortzen dituen gora-behera psikologikoen berri jakiteko.

«Bereizketa krisi garaia da eta seme-alabek oso momentu txarrak pasatzen dituzte. Gurasoak dira euren erreferentzia nagusiak, eta gazteonak, haurrek, gurasoak berriro elkartuko direlako fantasiaz izaten dute».

Seme-alabei aitarekin edo amarekin bizitzeko aukeran jartzen zaienean, «harreman afektibo handiena dulena aukeratzen

dute, ama gehienetan. Banaketaren ostean beraien bizi ez den gurasoa faltan botatzea familia bizitzan zehar izan duten harremanaren menpe dago. Familia bizitza arruntetan bi guraso daude, baina normalean bietako bat egon bakarrik egiten da, ez du parte hartzen hezikuntzan...».

Zuazoren iritziz seme-alabon zaintza aitari zela amari eman dakioko, «baina nik nahiago dut bitartekaritza familiarra, kasua epaitegi batean erabaki beharra baino. Bisitaldien erregimenean gehiago jasotzen dira gurasoen beharrak seme-alabek baino».

Zaintza elkarbanatuari dagokionez, «seme-alabak oso gazteak badira, hamar urte baino gazteagoak, komenigarria da gure iraunkor bakarra izatea erreferentzia afektibo moduan. Egoera ideala litzateke bi gurasoak auzo berean eta gertu bizitzea, orduan ia egunero aitarekin eta amarekin erlazioanatuko bailirateke; egoera ideal hori, ordea, ia ez da gertatzen errealitatean».

Gehienetan seme-alabak biktima diren arren, Zuazoren arabera sarritan gurasoek seme-alabek baino laguntza handiagoa behar dute.



Zaintza elkarbanatuaren aldeak

Zaintza elkarbanatua seme-alabek denbora bera pasatzen dute aitarekin zein amarekin. Gurasoek euren bizimoduari eta beharrei egokituko akordio bat lortzen dute, epailek gabe. Hala ere, gaur egun oso kasu gutxi gertatzen da zaintza elkarbanatua.

Zaintza elkarbanatua alderdi onak eta txarrak ditu. Txema Ruiz de Gordejuelak, zaintza elkarbanatua adostu zuen bere bikotearekin, eta alderdi onak azpimarratu dizkigu. «Seme-alabak aitarenak zein amarenak dira eta blek dute beraien gaitzak erantzukizuna. Zaintza elkarbanatuarekin blek dute harreman zuzena seme-alabekin. Blek seme-alabek behar dutenaren erdia ematen dute maila guztietan. Gurasoen arteko lotura emozionala elen arren, seme-alaben erantzukizuna banatu egiten da».

Berarentzat aita eta ama elkarrengandik urrun bizi dira ez da oztopo, gaur egungo komunikabideak oso onak baitira eta haurrak gero eta gutxiago jolasen baitira kalean.

«Lehenago lagunak eta ohiurak gordetzeko aukera handiak dituzte».

Carmen Rizo ere zaintza banatuaren aldekoa da, beldu bere bikotea batera bizi zenean erantzukizunak banatzen banatzen ziren kasuetan. «Gaur egun ez dut hain argi elkarbiltzen dena banatzen denik. Gizonaren eta emakumearen irudi tradizionalak nahiko ohi-koak dira eta mantentzen dira. Hori bai, egoera aldatuz doa».

Zaintza banatuaren arazoak teoria praktikara eramaleko orduan sortzen dira. Seme-alabek denboraldi bat bizi behar dute gurasotako bakoitzaren etxean, ala seme-alabak familiaren etxean geratzen dira eta gurasoak joan seme-alabek ebatera denboraldi baterako?

Ruiz de Gordejuelak dioenez, «zaintza elkarbanatua formula orokor bat inposatzea txorakeria bat da, ez du zentzurik. Bikoteak irtenbidetik egokiena aukeratzeko askatasuna ematen zaio».

Maria Iriarte gizarte laguntzailearen iritziz, «oso ona da gurasoek erabakitzea zaintza nolako izango den, gure uestez hori ez baitu epaileak erabaki behar. Bereizketaren ostenan bi gurasoak seme-alabekin egotea egoera ideal da, baina errealtatean zailtasun asko daude. Haurrak familiaren pisuan gelditu eta gurasoak baxantzzea nahaspila handia da seme-alabentzat zein gurasoentzat».

Zaintza elkarbanatua ondorioak ditu arlo ekonomikoan ere. Ruiz de Gordejuelaren esperientziaren arabera, «gurasoek kontu korronte bat irekitzen dute seme-alabek gasteak ordaintzeko, eta bakoitzak diruaren erdia jartzen du».

Seme-alabengan eragin ona izateaz gain, «banatutako aita eta amaren artean giro berezi bat sortzen da, eratzunkizun elkarbanatuarena, eta bien arteko harreman pertsonala, gehienetan telefono bidezkoa, sanoagoa bihurtzen da. Gorrotoak eta bortizkeriak indarra galtzen dute eta ahalizunak seme-alabengana bideratzen dira. Zaintza banatua bi gurasoak dirua banatzen guraso. Jakina, zaintza banatua ez ditu bikoteen arteko arazo guztiak konpontuko».

horroka bikoitza edo hirukoitza egin behar du epaitegitan. Pertsona hartu behar da aintzat, ez sexua».

Maria Iriarte Gipuzkoako Emakume Beretzuten Elkarteak gizarik laguntzailea da. Bere iritziz, «zenbait kasutan egokialago da seme-alaben zaintza aitari ematea, emakumeak ezin baitu jasan haur edo gazteek dakarten karga ekonomikoa».

Ruiz de Gordejuelak salatzen duenez, epailek ez dute jokaera bera gzonekin eta emakumeekin, eta gizonak diskriminatutako daude. «Zaintza aitari ematen zailtasun kasuetan amak seme-alabek erabat baztertu dituzte edo beraletaz ezin duela arduratu da. Zenbait kasutan, ama etxetik joan eta sei urtera seme-alabak eta etxea eskatu dituztenak, aita etxetik bidali dute».

Bereizketa kasuetan seme-alaben zaintza erabakitze orduan epaileen jarrera eta prestakuntza funtsezkoa da. Ruiz de Gordejuelaren iritziz, «epaile batzuk ez daude prestakuntza honelako gaitetan erabakialak hartzeko, ez baitute ezagutza nahikorik. Funtzionarioak dira eta oposizioen bitartez lortu dute kargua. Gainera, irizpideen bitartez lortu dute kargua. Gainera, irizpideen bitartez lortu dute kargua. Gainera, irizpideen bitartez lortu dute kargua».



Txema Ruiz de Gordejuela

«Zaintza lortzen ez duen gurasoa, gehienetan aita, ikusle hutsa eta egoeraren esklabu bihurtzen da, eta ez du erantzukizunik».

Haurren oinazea

Izan ere, haurrek sekulako oinazea bizitzen dute gurasoak beretzuten direnean. Bereizketa bera nahikoa ez dela, gurasoek erabili egiten dituzte elkarren aurkako tresna gisa, batak besteak beste erabiltzeko. «Gaur egun seme-alabek bereizketa prozesuan inplikatu behar dituzte, eta prozesua pibertzen denean gurasoak haurrak erosten salatzen dira. Seme-alabaren batek gurasoetako batekin ez duela egon nahi badio, ziurtenik norbaitek hareratu dio hori, ez bada muturreko kasua behintzat (iratu txarrak...). Prozedura judizial berak sortzen du arazoa, eta gurasoen arteko liskarra seme-alabek pasatzen die. Heilduen arazoa bada, helduek konpon dezatela», dio Carmen Rizo.

Izan ere, seme-alabek nahi baino gehiago jantzi behar izaten dute epaitegietara. Gurasoak ados jarri diren kasuetan seme-alabek euren iritzia eskaltzen zale akordioaz. Berez ez da beharrezkoa seme-alabek epaitegietara joatea, baina Donostian epailek delitu egiten dituzte. Beraien iritzia ezer gutxi balo du, akordioa jadanik adostua baitago.

Prozesu kontentziosuetan, hasiera-hasieratik epaitegietara jotzen denetan, semearek edo alabari ea norekin bizi nahi duen galdetzen zaio, eta printzipioz epailek bere iritzia aintzat hartzen du erabakitze orduan.

Carmen Rizo badu nahiko eskarmentu epaitegietan gertatzen denaz, eta bere iritziz «seme-alabek ez dira behar bezela entzuten, zaintzen eta babesten. Askotan Itxura gordetzeko bakarrik galdetzen zailela ueste dut. Seme-alabek euren lehentasunak buruz galdetzen zaie, ea norekin bizi nahi duten. Teorian behintzat seme-alabek iritzia aintzat hartzen denez, gurasoek presionatu egiten dituzte beraien alde hitz egiteko».

Seme-alabek kinka larrian jartzen dira, gurasoetako bat aukeratu eta besteak baztertu egiten baitute. Kasu horietan ezinbestekoa da epaileak gizatasunaz jokatzeko, epaitegiak ez baitira ingururik egokiena seme-alabek horrelako erabakialak hartatzeko. «Seme-alabek sekulako presioa eragiten zaie eta askok ez dute jasaten. Zazpi urteko haur bat historia atake bat eman zion Donostiako epaitegiaren atarian galdeketa-oren ostean, eta Arantzazuko Andre Mariaren ospitalera eramantzen zuten», dio Rizo.

Epaitegietan psikologoek ere lan egiten dute, alderdi bakoitzeko batek edo epaileak eskatuta. Psiko-



Maria Iriarte

«Zenbait kasutan egokiago da seme-alabek zaintza aitari ematea, emakumeak ezin baitu jasan haur edo gazteek dakartzaten karga ekonomikoa».

logoek familiaren bizitza eta egoera aztertzen dute galdere, frogak eta tesi batzuen bitartez. Psikologoek lana denborak mugatzen du, astebate inguru denbora gutxi baita familia bati buruzko ondorio argiak ateratzeko.

Zaintza auzietako abokatuena lana oso garrantzitsua da eta abokatuaren artean denetarik dago. Ruiz de Gordejuelak dioenez, «abokatuak aurrez aurre jartzen dute bikotea, eta bitartekaritza lana egin beharrean pletiatu egiten dute. Abokatuarentzat bere lana beste aldeko abokatuari kontra egitea da eta bidentzia sortzen du. Hori zilegi da lur zati bat lortzeko eztabaldan, baina ez seme-alabek jokoan daudenean».

Carmen Rizo abokatu matrimonialistaren arabera, abokatuaren artean denetarik dago. «Niri abokatu batek esan zidan nahitago zuela prozedura kontentziosoa, minuta (dirusarria) handiagoa baita. Matrimonialistak ez diren abokatuak ez dira jabetzen beraien bezerearen bitartean funtsezko erabakialak dela. Orokorrean abokatu matrimonialistek bitartekaritza lana egiten dugu eta akordioa bultzatzen dugu. Eratzagoa da horrelako kasuak noizean behin bakarrik hartzen dituzten abokatuak kontentziosora jotzea. Akordioak jendea baretzen dute eta ez dago akordioa baino sententzia hobetirik».

Zaintza prozesuetan parte hartzen duten alderdi guztiak akordioa eta bitartekaritzaren alde daude, baina haustura egoera horretan ez da erraza bikoteak irtenbidea elkarrekin finkatzea.

Txema Ruiz de Gordejuelaren arabera, «banaketa benetako krisia da, eta kristi betearen beharrezkoa da bitartekaritza bi aldeak ados jartzen laguntzeko. Epailek erabaki beharrean gurasoek erabaki behar dute, beraien familia eta etorkizuna baita. Gaur egungo bereizketaren disonantziak berak abokatu bat bestearren aurka jartzen du, eta bitartekaritza lana bultzatu beharrean trazu txikinak aterarazten ditu. Jarrerak hurbildu beharrean erabateko gudu sortzen da».

Emakumeen arazo nagusiak ez dira zaintza eskatzeko orduan sortzen, zainitza lortu ondoren baizik. Maria Iriarte Gipuzkoako Emakume Beretzuten Elkarteak gizarik laguntzailearen iritziz, «arazo nagusia ekonomikoa da, emakume gehienek ez baitute lanik. Lana baldin badute ez dago arazo handiegirik, baina langabezia egoeraz gero, iraumbizitzeko arazoak daude. Gainera, presioa jasotzeko zailtasunak izaten dira askotan, eta orduan seme-alabek erabiltzen dira aita presionatzeko. Pentsioak kobratzen ez badu, amak ez du uzten aitari seme-alaba bisingaltzen».

Banaketa kasuak oso korapilotsuak dira, baina EGUNKARIA-k hitzegin duen lagunen iritziz, egoera hobetzen ari da, gero eta akordio gehiago lortzen baitira. Epaitegiak saihesten salatzen dira bikoteak.

• JAKI GORDEJUELA •
BILBO, DONOSTIA